

## IRITZIA

Jon Gurrutxaga

## ERREPORTAIA

vansp an e • ati  
sker bizirik

## UDALETXETIK

HBren

•rentsaurrekoa  
lerri Kontuen  
tegiaren eta  
ntratazioen  
guruan

## GEHIGARRIA

TxikiBARREN

## GEHIGARRI BEREZIA

AUtoaren errebisioa  
oporretara joan  
aurretik

## KIROLA

Sei sari oibarko  
eskubal  
taldeentzat

## KULTU

Elgoi • rko turismo  
gid alean

## GAZTARQA

Kontzertua

Ma« :lan: Breag,  
Ara k, Fundiziyue  
eta Ehun Kilo

# BaRRREN

uraren 11  
V. urtea - 202. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Pili Goikoebeo:  
“24 witelte  
owti haten  
billetta  
daukar

“Heriotzaren tristura poza bihurtzen da transplanteen bidez” Ramon Unzilla

# ZEZEN-BIDE

## AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi  
eta motorrentzako  
gida-baimenak



*%10eko deskontua  
Gazte Txartelarekin*



San Frantzisko, 43 – Tel: 74 27 20 – ELGO1BAR ■ Zezenbide, 1-1 – Tel: 20 34 35 – E1BAR

  
**VICTORIA  
IRAEGUI**  
Kiramasayista


**KONTSULTA  
BERRIA**


P. M. urruzuno, zi  
Tel: 74 07 70

**arautegia:**

**Goizez**  
**10:30etatik**  
**13:00etara**

**Arratsamez**  
**15:00etatik**  
**19:00etara**





JON GURRUTXAGA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeraten dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratu du.

## Euskaldunak eta euskararen erabilpena

**B**i hizkuntza ezberdin mintzatzen diren herrialde guztietan, beti ere hizkuntzetako bat bestearen aurrean gailentzen da, eta ondorioz bietako bat baztertua izaten da. Diglosia egoera honen adibide garbi bat Euskal Herrikoa da. Izan ere, ez baita atzo goizeko kontua Euskal Herriko kaleetan (batzuetan beste batzuetan baino gehiago) gaztelarak duen indar zapaltzailea.

Egia da, bai, egoera honen arrazoiaren zati handi bat espainiar estatuak frankismoaren garaian egindako errepresioari zor zaio, baina kontu horiek bukatu ziren, egoera ordurik honantza hobetu egin da, euskara hutsezko hezkuntza sendoa daukagu eta euskararen jakitun askok, oraindik ere, gaztelarara jotzen du besteekin harremanetan jartzerako orduan. Honela, euskarak askotan haur, zahar eta txakurrekin erabiltzeko hizkuntza dela dirudi.

Elgoibarko kasuari atxekiz, eta Udal Euskara Batzordeak 1996an ateratako datuak aztertzen haditugu, euskara elgoibartarren %64ak ezagutzen duela ikus dezakegu eta horietatik erdiak soilik erabiltzen duela herriko kaleetan. Gauzak honela, herrian euskara erabiltzen duten pertsonen adinei erreparatuz euskara zahar eta haurren hizkuntza dela dirudi. Honekin ez dut esan nahi gazteak ez gabela euskaraz mintzatzen, baina argi dago portzentaia askoz ere ixikiagoa dela. Hala ere, gure kasua negar malkotan itotzeko modukoa ez bada ere, arestian aipatutako datuok kontuan hartzekoak direla uste dut.

Argi dago, hortaz, elgoibartarren erdiak baino gehiagok euskara ezagutzen badugu ere, ez dugula gure eguneroko bizitzan erabiltzen. Denok gaude euskararen alde, denok nahi dugu instituzioen euskalduntzea, denok nahi dugu Euskal Herri euskalduna, baina gero, zoritxarrez, praktikan kale egiten dugu. Badakit askotan, erdarara jo behar izaten dugula egoerak hala eskatzen duelako (ondoakoak euskaraz ez dakielako...), baina ezin dugu ukatu, inolaz ere, askotan beharrik gabe gaztelera erabiltzen dugula lagun artean, kuadrilan, baita etxean ere.

Gakoa, nire ustez bederen, KONTZIENTZIAN dago, pentsatzen baitut, oraindik ere, euskaldun asko ez dagoela arlo honi dagokionez batere kontzientziaturik. Beraz, euskararen erabilpenaren inguruan euskaldun askoren "pekatua" kontzientziarik ez izatea izango litzateke. Bestalde, nire asmoa ez da kontzientziarik gabeko pertsona horiek nintzea, denon momentu batean edo bestetan agertzen zaigun argi gorri hori piztera animatzea baizik, Beste gauza batzuetarako izaten dugun kontzientzia hori sortzea da nire xedea, hori lortuz behintzat norbaiti erdaraz hitzegitera goazenean, zergatik erabiliko dugun erdara galdegingo diogu gure buruari, eta honek berak (kontzientziarik) euskara erabiltzera bultzatuko gaitu. Beraz, bila dezagun geure barnean euskaldunok behar dugun argi gorri hori eta izan gaitezenean behar bezalako euskaldun.

**"Euskararen erabilpenaren inguruan euskaldun askoren 'pekatua' kontzientziarik ez izatea izango litzateke"**





Nafarroa enparaniza, 2  
20870 ELGOIBAR  
zr 74 41 12  
Publizitatea:  
† 74 37 04  
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA ————— Elgoibarko Izarra

LAowitzaLEA ————— Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA ————— Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA ————— Andres Alberdi,

Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabilarte

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA ————— Miren Moreno

MAKETATZAILEA ————— Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA ————— Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rata Alvarez

KOLABORATZAILERAK ————— Irati Agirreazaidegi,

Gemma Agirregomezkorta, liziar

Ion Arrieta, Agurtzane Arriola,

Eduarne Bilibao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, J uanito Gorostiza,

Ane Guillo, Jon Gurrutxaga,

Antton Iriondo, KOKOE,

Imanol Larrarlaga, Javi LeOn,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ongarri Zine Kluba,

Pello Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe,

Leire Urkidi, Iban Urizar

Unai Villena eta Julen Zabaleta

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA ————— Gertu Koop. E.

TIRADA ————— 4.000 ale

LEGE GORDALUA ————— SS-1.038192

ISSN ————— 1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.*



*fundazioa  
fundaciOn*

## Agur blaki, agur

Urteak dituk Elgoibar laga eta Azkai-tian urte batzuk egin ondoren, h'ufeara joan hintzela. Ez haugu, hala ere, ahaztu. Zumaiako jaioterrilik etorri hintzen Elgoibarrera eta hemen ezagutu genian elkar, 1955-56 urte inguruan, euskal giro gosez, elkar ezagutu ere. Harrez gero, hamaika aldiz elkarren inguruan: zenbat mendi irteeratan, euskal jaietan, hainbat txangotari... Zenbat nahigabe eta aldebereko poz txiki, denetik bagenian garai haietan.

Gauza ugari egindakoa haiz hi. Erromara joan behar zuten Juventudes Obreras Crsitianas (JOC) hartako partaideei hutsetik ha.sita erakutsi hien dantzan, baita Erroman bertan dantzatu ere, 1977ko San Bartolome egunez, 200.000 lagunuen aurrean eta arrakasta erabatekoa Iortuz.

1959-60 urte inguruan ONGARRI sor-tu ondoren, gaurko HARITZ taldearen lehen urratsak hire txistuaren bidez izan hituen. Beranduago, ONGARRIK euskal kultura gaztelaniaz lantzeko asmoa zeukala ikusi ondoren, konforme ez eta euskara salbatuko bazen, euskara beraren bitartez izango zela sinestuz, ELGOIBARKO IZA-RRA (Ikastola) sortzen murgildu hintzen buru-belarri, makina bat lan eginez.

1959 urte inguruan, txistua izkutatuta gurutzatu huen Bidasoa. Han ibili hintzen Jose Antonio Lehendakari Jaunaren bihotz-belarriak gozatzeko hire abilezia erakusten.

Zenbat ibilaldi gozo hire Patxiko eta Silbino lagun hituela. Berez, izaeraz, alai hintzen eta txistuaren bidez kutsatzen hituen bazter guztiak heure pozez. Gaur nola neurtu, ordea, orduango txistu gose hura eta berarekin zeukan sinbolismo guztia? Ondo gogoan dizkiagu Sar-goateko erromeriak: 100 gazte baino gehiago karreatuz, argazkiak dizkiagu lekuko. San Pedroko irteerak, haur eta guraso, 200 pertsona inguru. Domekero bazen zer egin eta zer antolatua, euskara indartzea helburu zuenarentzat.

Azkoitira joan hintzenez, pena eta hutsunea sentitu arren, Iagun jarraitu genian. Iruñeara joandakoan, oster, gure lagunartea sendotu baino ez huen egin. Noiznahi eta beti, edozertan laguntzeko prest hintzen.

Elgoibarrera azkenengo aldiz KILO-METROAK 96 egunean etorri hintzen, heuk ereindako hazia ikustera eta hire lagunena lana goratu eta txalotzera.

Orain hilabete, ekainaren erdi aldean bisita egin genian, aurrez genekien berri gaiztoa egiazatzeko. Hiltzen ari hintzen. Hala

ere, heu guri animoak ematen. Fedea behar zela eta Goikoak hala nahiko zuela eta gure mina leuntzen. Bost seme-alaba jator eta emazte Miren agurtzeko prest hengoan.

Eta gaur, San Fermin eguna, Inleako jaiak eta hire hileta Zumaian. Hala-kotxea duk mundua. Hik espero duan Goiko horren aurrean aurkezterakoan ez haiz behintzat esku hutsik azalduko, eta, lasai. Laster arte.

Felix Etxeberria, Parapan

## Euskal Herria bahiturik!

**n**osme Delclaux eta Ortega Lararen l—.askatasunaren beniak komunikabide guztien lekuri garrantzitsuena okupatu du azken egunetan. BaRREN aldizkarian ere notizia izan da. Batzuentzat uztailaren lehenengo eguna askatasunaren eguna izan da. Guzti honen aurrean, beiTiro ere gogoratu behar dugu bi pertsona horiek bre egoteak ez duela esan nahi hemen eta orain askatasuna dagoenik. Horrek bi pertsona horiek askatasuna berreskuratu dutela bakarrik esan nahi du. Bitartean, Euskal Herriak bere askatasuna berreskuratu gabe jarraitzen du:

Euskal Herriak ezin du bere etorkizuna aukeratu autodeterminazio eskubidea ukatzen zaiolako. Euskal lurraldeek banatuak eta bi Estatu zapaltzaileen menpe jarraitzen dute. Herri Batasunaren Mahai Nazional osoa gartzeleratzen dute bake proposamen bat zabaltzeagatik.

Euskal presoak etxetik oso urrun daude, legeak beren familatik ahalik eta gartzelarik hurbilenean egon behar direla esan arren. Eta ez 532 egun, 6500 baizik, batzuek daramatzaten bezala. Preso hauen giza eskubideak ez dira errespetatzen eta gainera 114 euskal presok beren gartzela zigorraren hiru laurdenak beteak dituzte, beraz, legez kalean egon beharko lukete. Baina gartzelan bahiturik dituzte. Hauek dira komunikabideek izkututzen dizkiguten errealitate batzuk, beharbada beraien-tzat ez direlako "notizia".

Egoera hau hortela mantentzen duten bitartean gezurra da demokrazia eta askatasuna daudela esatea, Euskal Herriak bahiturik jarraitzen duelako. Benetako demokrazia eta askatasuna lortu nahi badugu, borrokatu beharra dago. Eta denok dugu Iekua askatasunaren aldeko bidean. Euskal Herria askatu!

Elgoibarko Herri Batasuna



## KEXAK

- **Pedro Muguruzan bizi diren haur batzuk** etorri dira kexa hau plazaratzeko asmoz: "Duela asko Pedro Muguruzako ikastetxean saskibaloia kanastak zeuden. **Zaharrak eta apurtuta zeudelako kendu egin zituzten** eta aspaldi esan ziguten Udaletxeok **berriak jarriko zituztela**, Orain barandila berriak jarri dituzte eta saskibaloiko kanastak jartzeko zain gaudete. Bada ordua, ez?"
- **San Pedroko bidearen egoera negargarria salatzea nahi du elgoibartar batek:** "Joan den egunean autoz igo ginen San Pedrorra

eta errepidea benetan gaizki dagoela ikusi genuen. Konpontzeko ardura duenari lehenbailehen zerbait egiteko eskatu nahi diot".

- Emakume talde bat etorri zaigu **Eusko Trenbideak** enpresa salatzeko. "Debara joaten diren trenak jendez gainezka joaten dira. Gainera, trenera igo aurretik biletea pikatzen dizute eta askotan trenera sartu ezinik geratzen zara. Hori bai negoziatio! Lotsagarria da zein egoeratan bidaiatzen dugun, animaliak bezala, bata bestearen gainean. Zerbait lanua gertatu beharko da arduradunek zerbait egiteko".



## TXALOAK



- Guraso eta seme-alaba batzuk etorri zaizkigu **Elgoibarko Atxutxiamaika Begirale Taldekoak txalotzeko**. "San Fermin Txiki Eguna" antolatzeagatik txalotu nahi dituzte, "eguraldi benetan kaxkarra egin zuen arren jai oso polita atera baitzen. Poniak eta zezentxoak egon ziren eta gure haurrek ikaragarri ondo pasatu zuten. Eskerrik asko egin duzuen lanarengatik eta hurrengo urtean ere beste horrenbeste egin".

## BAI, ESAN?



**Blanka Salegi**  
Kultura teknikaria

**Aste honetako telefono deia kultur teknikaria den Blanka Salegiri** luzatu diogu. Izan ere, Kultura Batzordea hasi da San Bartolomeetako jai egitarana prestatzen eta antolakuntza lanak nola dauden jakin nahi izan dugu.

**Izango al da aldaketarik aurtengo jaien egitarauan?**

Bileretara jende gutxi etorri bada ere, izango dira aldakuntzak. Adibidez, futbol txapelketa bat izango da zezen enbolatuekin eta Tirri-Tarra taldearen show-a. Orain gazteen erantzuna zer nolakoa den ikusi da.

**- Jaiak beti berdina izaten direla komentatzen du jendeak. Zer diozu?**

- Iharduera batzuk tradizioz (ohituraz) mantentzen dira eta jendeak erantzuten duen heinean bere horretan jarraituko dute. Ohiturak aldatzen badira eta herriak ere aldaketak nahi baditu, Udalak garai berrietara egokitu beharko ditu ekintza horiek.

**- Egitaraua prestatzeko deialdia luzatu duzue. Hurreratu al da jenderik bileretara?**

- Hiru bilera izan dira eta jende gutxi etorri da. Gainera, jendeak ideiak eta musika taldeen izenak eman ditu baina ekintzak antolatzerako orduan ez daude laguntzeko prest. Denbora igaro ahala, Jaien Batzorde bat osatzeko itxaropena dugu.

**Amaitzeko, zer da Udalak jaien bidez lortu nahi duena?**

- Jendeak ondo pasatzea, egunerotasuna ahaztea eta jaiak irauten duten bitartean bizimodua aldatzea. Bestalde, jaiak egokiak dira jendearen partehartzea bulizatzeko eta lagunartea indartzeko.



**SANYO C-2585 TX telebista**

- 25"tako pantaila
- ®Kate frantsesak
- Teletexto-a

*65.900 pta.*

Ubitarte plaza, 3  
Tel: 74 14 87

# Bizitza berri bati aurre egifiaz

*Sarri esan izan da parean gertatu arte ez garela hainbat gauzaz koturatzten. Eta, egia esan, horrela da izan. Gauzak eskura ez ditugunean desiratzen ditugu eta galtzen ditugunean baloratzen. Gaurkoan, euren bizitzako momentu batean osasuna galdu zuten pertsonekin hitzegin dugu. Hauei guztiei une konkretu batean, gaixo zuten organua gorputzetik atera eta ezezagun bate-na jarri zieten haien orde. Horrela bizi dira. Heriotza parean ikusi baina aurre egin eta beste era batera bizitzen ikasi behar izan dute. Hauek, beste askok baino gehiago gozatzen dituzte bizitzak eskaintzen dituen une goxoak. Aurpegi txarra ere ikusi izan dutelako besterik ez bada ere.*

## Urtebete bihotz berri batekin

**P**ili Goikoetxea orain dela 62 urte jaiotzen arren, urtebete duela esan daiteke. 1996ko ekainaren 19an kirofanora sartu eta 24 urteko mutil gazte baten bihotza jarri zioten berearen orde.

Anjina batzuek eraginda hasi zitzaizkion arazoak bihotzean, "eztarriko pusek bihotzeko balbula bat jan

zient. Baseniko lanak eitzen nekatu eitzen nitzan eta pruebak ein eta gero medikuak esan zian bihotza ez nakala ondo, Aorta deitzen dana itxita nakala eta 80 urteko pertsona baten bizitza ein biharko nabala. 18 urte ni txuan".

Bizitza aldatu egin zitzaion eta konturatu zenerako ospitale ospitale ikusi zuen bere burua. Urteak pasatu ziren eta alaba bat ere izan zuen.

Kontua da, egun batean operazioa behar zuela esan ziotela, "balbula berrixa sartu bihar zien eta Londresera jun nitzan. Nere biriketako balbula ipini zien Aortian partez eta bestian tokixan pertsona baten balbula. Lelenguetarikua izan nitzan holako operaziva itxen ordurarte txerrixen balbula transplantatzen zebe eta. 33 urte nakazen".

Urteak joan urteak etorri, egun

batean sendagilearen kontsultan zegoela Pilik, brometan, bihotza transplantatu beharko ziotela esan zion medikuari. Sorpresa handia hartu zuen Pilik medikuaren erantzuna entzutean, "eskerrak zuk esan dozun. Ni ez nitzan atrebitzen ezer komentatzen". Beharrezko frogak egin zituen eta sei hilabetera, 1996ko ekainaren 19an, Madrilgo Gregorio Marafion ospitalen operatu zuten. Pili oso ondo dago, "penia da bihotza transplantatu eta gero tratamendu fuertia jarri ziela eta indarripe geratu nitzan, musukuloripe, hezurak oso debilak... Hori ez dao konpontzerik". Egunero 24 urteko mutil gaztearen alde otoi egiten du Pilik, "penia da pertsona bat hil biharra beste baten bizitza salbatzeko, baina hola da". Bizitza gogorra tokatu zaio emakurme honi, "burutik ere



*Pili Goikoetxea bihotza transplantatua duen elgoibartar bakarra da*

operau zien tumore txiki bat nakalako. Heriotza begixen aurrian euki dot behin baino gehixotan eta kontatzeko moduan nao. Hori da inportantiena".

## Sei urte dialisiarekin

**T**xikia zenean esan zioten Koro Aldazi giltzurrunak ez zituela ondo, "hasieran ez duzu sinestu nahi, begiak ixten dizkiozu errealitate bati eta ahalik eta gehien atzeratzen duzu gaia". Halere, momentu bat ailegatzen da gaixotasuna bere osotasunean onartu behar izaten dena, "oso ahula sentitzen nintzen, kalanbreak izaten nituen eta alaba izan nuenean gauzak okerragotu egin ziren... Horrela ezin jarraitu eta, azkenean, dialisiarekin hastea erabaki nuen".

Koro astean hiru aldiz Donostiara joaten zen eta lau ordu ematen zituen dialisiarekin, "bi orratz sartzen dizkizute besoan. Orratz batek odola ateratzen du zure gorputzetik eta hodi baten bidez makina batera eramaten du. Makinak odola garbitu egiten du eta beste hodi batetik, bigarren orratzera bidali eta gorputzera sartzen dizute berriz".

Korok beti izan du oso garbi ahalik eta bizitarik normalena egin nahi zuela. Halere, gauza guztietan ez da posible, esate baterako janariari dagokionean. "Dialisia egiten egon nintzen urteetan, esaterako, asko zaindu behar nuen janaria eta edaria. Dialisi egun batetik bestera ezin nuen bi litro likido baino gehiago edan eta gehien jota 2,000 gr. potasio har nezakeen". Gainera Euskal Herrian gauza guztiak mahai baten bueltan ospatzen ditugu, "astebukaeretan amorratuta

amaitzen nuen, kalera atera lagunekin eta jateko orduan beti arazoak. Batzutan, normal afaltzen nuen eta hurrengo egunean gosaldu eta bazkaldu gabe egoten nintzen".

Sei urte eman zituen dialisiarekin eta transplantea egiteko zain. Duela lau urte deitu zioten berarentzat aproposa izan zitekeen giltzurruna zutela esanez. Ebakuntza ondo atera zen. Normalean ez dute jakiten nor izan den organua eman duena, "hobe da bestela arriskua baitago organu emailearen familiarekin nolabaiteko



lotura sortzeko eta ez da komeni". Halere, Korok badaki parapentea egiten ari zen mutil bat erori eta hil egin zela eta bere giltzurruna eman ziotela, "nire familiak egunkarian izan zuen istripuaren berri". Ondo baino hobeto gogoratzen du Korok transplantea egin eta gero bizi izan zituen lehen Gabonak, "urte mordo bat eta gero, lehen aldiz mariskoa eta

turroia jateko aukera izan nuen. Kriston enpatxoa hartu nuen!".

## Heriotzaren atarian

EBBetatik San Bartolome jaietarra oporretan etorria zen Ramon Unzilla. Begiak horitu egiten zitzaizkiola eta analisiak egin zituen. EEBB-etara itzuli zenean, han jarraitu zuen frogekin gora eta behera. Esan ziotenez, "Colangitis eselerosante" izeneko gibleko gaixotasuna

zuen. Munduan 700.000 pertsonen artetik kasu bakarra agertu ohi da eta Ramoni tokatu behar. Garai hartan ez zen ezagutzen gaixotasun horren jatorria ezta sendatzeko era ere. Beraz, dieta garbi bat jarraituz eta alkohola eta tabakoa kenduta, bizitza normala egiteko aholkatu zioten. 1990. urtea zen eta bi urtera Euskal Herrira huelatatu zen. 1993ko abenduan gripea izan zuen, "baina berez gripe normala izan behar zena konplikatzen joan zen eta martxoan ingresatu egin ninduten. Orduan esan zidaten gibela transplantatu beharko zidatela". Santanderre joan zen eta bertan zenbait froga egin eta gero itxaron zerrendan sartu zuten. Baina gauzek okerrera egin zuten eta. astebetean Ramonen egoera oso larria zen, "Europa mailako zerrendetan **lehena**

nengoen, `alerta roja'n zegoen nire egoera. Hilzorian nengoen, eta gibela ez zen iristen". Hilabete osoa eman zuen horrela, zain. "Eta derrepentean, koman nengoela, 49 kiloko pisua nuela, heriotzaurreko egoeran nengoela, gibela iritsi zen". Kirofanora sartu zirenean hildako baten gorputza zegoen ohatila gainean, "baina, familiaren presioa batetik eta medi-

ku batzuen profesionaltasuna beste-  
tik, azken ahalegina egitea erabaki  
zuten. Eta gibela transplantatu zida-  
ten". 1994ko ekainaren 22-23 bitarte-  
an izan zen ebakuntza eta Ramon  
berpiztu egin zela esan daiteke. Erre-  
kuperazioa luzea izan zen eta gaur  
egun oraindik ere hiru hilabetean  
behin errebisioa egitera joan behar da  
ospitalera, "Santanderren `milagrito'  
deitzen didate". Kontua da hiru urte  
pasa direla ordutik eta Ramonek bi-  
zitza erabat normala egiten dueia"  
"defentsa guxtiago ditugu eta auto-  
kontrola izan behar da, besterik ez".

Esperientzia guztiek zerbait era-  
kusten dute eta Ramonek esan digu-  
nez, "bizitzari buruzko ikuspegia, fi-  
losofia eta baloreak aldatu egiten di-  
ra, Heriotza begi aurrean izan nuen,  
azken arimarekin geratu nintzen eta  
horrek pisu handia dauka". Ramonek  
esan digunez, "koman egon nintzene-  
an nire ondoan jende asko egon zen  
etengabean animoak ematen eta esna-  
tu nintzenez haien ahotsak gogora-  
tzen nituen eta banekien haietako ba-

tekin taberna batean geratu nintzela  
uztaileko egun batean kafe bat hartze-  
ko. Sekula ez nintzen nire egoera la-  
rriaz erabat kontziente izan eta horrek

indarra ematen dizu. Transplante ba-  
ten zain dauden guztiak animatu nahi  
nitezke, edozein egoera izanik ere, bi-  
zitza merezi duelako".

*Ramon Unzilla  
hiltzerian zegoen  
gibela  
transplantatu  
ziotenean.*



Bizi zaitez naturaz inguraturik


## IV1ENDARO

**ENPARANTZA TXIKI berrian**



Eraikitzailea: VICON

Informazioz Bulego mugikorra obren ondoan Tel: 939 64 79 45 estelehenetik ostiralero, 10etatik 2etara eta 4etatik 8etara



### 30 ETXEBIZITZA

- Garaje eta trostelekua prezioaren barne
- Prezio itxiak zerga guztiak barne, BEZa izan ezik
- 2 eta 3 logelatako etxebizitzak

3 iogela 83,9 m<sup>2</sup>

**I 3.500.000 IPTA.**

Informazioa eta gestioa:

**INDURAIN & ASOCIADOS S. L.**  
Donostia - Irufiea  
Tel: 21 95 36 (048) 15 23 62



# Organu emailea al zara?



**AMPARO ATRIO**

34 urte, etxekoandrea

Ez. Pentsatu eta planteatu ere egin izan dut baina sekula ez dut pausoa eman. Odol emailea izatea ere pentsatu izan dut baina alergiak izaten ditut eta...



**JUANJO RUMAYOR**

40 urte, kalitate kontrola

Ez, odol emailea bai baina organuena ez. Emaie izateko papelak euki izan ditxut eskuetan baina ez dakit zergatik ondiok ez dot erabakia hartu.



**PILAR PONTE**

61 urte, etxekoandrea


Ez, ez zait sekula burutik pasatu eta inork ez dit inoiz galdetu emaile izan nahi dudana. Halere, transpianteen gaia garrantzitsua da bizitzak salba daitezkeelako.



**MIARMEN GALLEGO**

19 urte, ikaslea


Bai, duela hilabete egin nintzen organu guztien emaile. Odolarena ez, orratzak inpresio handia egiten didalako. Betidanik izan dut gai honekiko sentsibilitate berezia.



**EUSTAKIO GOÑI**

70 urte, jubilatua

Ez, oin dakaten edadiakin ez dot uste inorentzat ezer onik emateko moduan egongo naizenik. Halere, inportantia da eta gure etxian badaude organu emailiak.



**MARZELO MENDIZABAL**

24 urte, saltzailea

Ez, sekula ez jata burutik pasau. Apurua ez dia ematen eta inportantia da baina sekula ez dot organu emailea izatia pentsatu.

Pedro Muguruza 5  
Tel 74 08 06  
20870 ELGOIBAR

**Kontabilitate**  
- Lan

Kalamua 12  
ELGOIBAR  
Tel-Fax:  
74 18 91

**URKIDI**

FiSkai **AHOLKULARITZA**  
**ITT ERCOS ASEGUROAK**

**FADEK**

Abuztuan zabalik  
9:30etatik 14:00etara  
Astelehenetik larunbatera

**leapaindegia**  
solariuma

Errosario, 23 behea  
Tel: 74 26 92

• **8 galdera**  
**Urruzunoko etneen**  
**proiektuari buruz**

Artetxe, Pedro Muguruza eta San Pedroko Auzotarraren Elkarteak Urruzunon Etxebizitzak eraikitzeko planaren inguruan idatzi bat kaleratu du 8 galderarekin. Bertan San Rokeetik Melitoriera bitartean eraikitzeko asmoa dagoen errepidea trafiko handikoa izango dela esaten da, 7 metrotako zabalera izango duelarik. Babes 011-ziialeko etxebizitzak "kalitate gutxikoak" direla diote auzotarrak, hala ere, "kalitatezko babes ofizialeko etxebizitzaren alde" daude. Proiektuan aurrirakosten diren 8 etxebizitzak blokeak eraikitzeko, gune berdeak desagertu egingo ornen dira eta Muguruza etorbidea itota geratuko da. Auzotarrak proiektua gertzearen alde agertzen dira, "gure auzoa hobetu nahi badugu behintzat".

• **Aholkuak**  
**beherapenatarako**

Kontsumitzailearen Bulegoalc zenbait aholku eman ditu udako beherapenetan egiten diren erositaketan imzurrik ez gertatzeko. Batetik, erositakoaren tiketa eskatu. Itzulketak egiten dituzten lekuetan erosi eta prezio zaharra eta berria azaltzeko eskatu. Era berean, produktuaren kalitatea beherapenetan jarri aurretikoaren bera dela ziurtatzea aholkatzen du.

• **Lanbide**  
**Heziketarako**  
**ikastaroak**

Eusko Jaurlaritzak eta Europako Fondo Sozialak diruz lagundutako Lanbide Heziketarako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Bi ikastaro emango dira: teilatuar jartzea eta soldadura. Bietan izena emateko edo informazioa eskuratzeko Durangoko 94 620 04 49 zenbakira deitu.

**Txomin Zabaleta elgoibartarra apaiz**  
**ordenatuko da igandeko mezan**

**T**xomin Zabaleta Aranberri, 25 urteko gazte elgoibartarra, apaiz ordenatuko da igandean, hilak 13, goizeko 11:30etan hasiko den mezan. Jose Maria Setien Gotzainak parte hartuko du mezan eta Txominek berak esan digunez, "mezaren erdi aldera ordenazio ekitaldia hasiko da". Behin apaiz dela, Txominek meza kontzelebratuko du, apaiz bezala ematen duen lehen meza izango delarik. Mezaren ostean bazkari herrikoia egongo da

Loiolako Kiruri jatetxean. Nahi duen guztiak joateko aukera izango du bazkari txartelak aurrez eskuratuz gero.

Aspaldian ez da apaizik ordenatu Elgoibarren. Azkena Jose Cruz Igartua Salaberria ordenatu zen orain dela 24 urte. Donostiako seminarioan Teologia ikasketak egin ditu Txominek eta 6 urteko Iizentziatura omen da. Ikasketen bosgarren urtean apaizgaiak diakono ordenatzen dira. Txominen diakono ordenazioa iazko ekainaren 29an izan zen Donostiako Artzai Onaren Katedralean. Ordutik Tolosako Santa Maria parrokian egon da. "Egia esan oso-oso gustura pasatu dut urtebete hau Tolosan eta hemendik aurrera Legazpin egongo naizela esan zidatenean, hasiera pena hartu nuen baina orain pozik noa, beti haita aberasgarria ezezaguna zaizun herri bat ezagutzea".



**Udaletxeko langilea izateko PNVkoa**  
**izan behar dela salatu du HBk**

**H**Bk Herri Kontuen Euskal Epaitegiak argitaratutako txostenaren inguruko prentsaurrekoa eman zuen PNVren jarrera salatzeko. Pello Mendizabalen hitzetan, "EB-IUekin batera egin genuen pleno eskaerari ez zaio kasurik egin. Horren ordeztan, Gillermo Garate alkateak biraoekin erantzun digu prentsan". HBk esan zuenez, "guk informarearen berri eman dugu eta erantzukizunak eskatu ditugu. Herriko Antzokian irregularitate asko egon zen eta garai hartan Garate zen Kulturako lehendakaria". Mendizabalek gaineratu zuenez, "PNVk korrupzioa babestu egiten du bere jarrerarekin".

Horrez gain, EA, PSE eta PPren jarrera ere salatu zuen, "hauek ez dute ezer ere esaten eta isiltasunak kasu honetan inpunitatea esan nahi du. Informerik egon ez balitz bezala jokatzeko dute".

Azkenik, Udaletxeko pertsonalaren kontratazioan izan diren irregularitasunak salatu zituen Mendizabalek, "hor daude haziendako teknikariaren kasua, aerobleraren gaia, brigadakoa, liburutegia eta Mintxetarekin ere izan ziren zenbait kontu...". HBkoen ustez, "garbi dago Elgoibarko Udaletxean lan egiteko PNVkoa izan behar zarela".





## Aupa San Fermin!

Inulean ez ezik Elgoibarren ere badugu San Fermin jaia. Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Begirale Taldeak San Fermin Txiki eguna antolatu zuen joan den asteazken goizean. Jendetza bildu zen Plaza Handian San Fermin santuari salbea abestu eta entzierroa korritzeko. Txupinazoa bota ondoren hasi zen jaia. Eguraldiak gehiegi Iagundu ez bazuen ere, hurrek ez zioten euria-ri erreparatu eta argazkiek

erakusten duten bezala, ederki pasatu zuten poni eta zezentxoekin. Ezustekorik ere izan zen, zezentxo batek, ikararen ikaraz, seguritate bailaren gainetik salto egin baitzuen. Zolua hustia zegoenez, zezentxoak ateratzen zituztenean denbora tarte txikietan eduki zituzten aske. Atxutxiarnaikako begiraleekin izan ziren 125 hurrez gain, beste horrenbeste gaztetxok hartu zuten parte jaietan.



### • Elgoibarko alkatea "Gipuzkoa 800 urte" ekitaldian


Gillermo Garate alkateak joan den domekan Getarian izan zen Gipuzkoako Anaidea sortu zeneko 600. urteurreneko ekitaldian parte hartu zuen. Gipuzkoako alkate guztiak Getariako plazan elkartu ziren eta segidan San Salvador elizarantz abiatu ziren desfilean ikurrifiarrekin. San Salvador eliza berrinauguratu ostean, 1397. urteko uztailearen 6an Gipuzkoako Anaia egindako 59 legeko koadernoak irakurri eta onartu zuten. Koaderno hau kode penal batek eta barne araudi batek osatzen dute. Koadernoak alkateei justizia aplikatzeko gaitasuna ematen zien. Anaidiaren legeen arabera, Gipuzkoa osoa 7 partidutan banatzen zen. Elgoibarko partidua Deba, Mutriku, Debak eta Zumaiak osatzen zuten eta Elgoibar zen guztien buru.

### • Conchi Reche-ri adjudikatu zaio aerobic zerbillua

Udal Kirol Patronatuak, alderdi politiko guztien adostasunarekin, aerobic zerbitzua Conchi Reche-ri adjudikatzearabaki du. Biganen aldia da Patronatuak aerobic zerbitzuaren lehiaketa kaleratzen duela. Aurrekoan aurkeztutako hiru proposamenetatik batek ere ez zuen betetzen oinarrietan eskatzen zen euskara maila. Bigarren lehiaketa honetara bi aurkeztu dira: Conchi Reche eta Olga Garcia. Bakoitzaren proposamen ekonomikoa, gestioa, titulazioa, esperientzia eta euskara maila aztertu eta gero Conchi izan da irabazlea. Conchi ermuarra Kiroldegia sortu zenetik ari da bertan aerobic ematen.

### • Ur eta zaborraren zergak ordaintzeko epea

Udaletik jakinarazi digutenez, 1997ko bigantn hiru hilabetekoari dagokion ur, zabor eta estolderiaren zergak ordaintzeko epea hilaren 18 arte izango da. Ordainagiriak aurrezki kutxa edo banketxetik ordaintzen ez dutenek goizeko 11 letatik ordu batera bitartean egin dezakete ordainketa aipatutako epearen barruan Udaletxeko bulegoetara zuzenduz. Epea pasatuz gero %20 gehiago kobratuko da atzerapenarengatik.




**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**


E,1,/(4,-e4A, 44/Wa;t1ltga.k.

4~ -12amk

Urasandi 12 behea  
Tel-Fax: 74 04 89



**KAROBI**



ste honetan Sigmako Pilota Txapelketa dugu atal honen protagonista. **Estarta Elkarteko kide batek** ekarri digu argazkia erredakziora eta 1973. urteko uztailean dago aterata Sigmako frontoian. Beraz, gaur egun Sigman jokutzen den Pilota Txapelketa aspaldikoa

dela begibistakoa da.

Nor diren argazkikoak? Hona hemen izen-abizenak ezkerretik eskumara:

**Primitivo Morlan, Jesus Iparragirre, Antonio Sanchez, Jose Luis Sanz, Jesus Beraza, Roberto Panizo, Juan Carlos Ibañez (t) eta Juan Belmonte.**

Makurtuta, **Carlos Panizo** eta **Jose Luis Amuategi (t).**



*Iñaki E*ño G(14kt'a

*1997ko uztailearen 6an hil zen  
66 urte zituela.*

*IÑAKI EGINO URBIETAren omenez MEZA  
izango da Parrokian, uztailearen 12an, larunbata,  
arratsaldeko 7etan.  
joan behar duzuenoi eskerrak alde zurretik.*



**1121.11ITZ  
EUSKAL  
MINTZARI TALDEK**



**ELGOIBARKO  
UDAL  
TXISTULARI  
TALDEZI**

# xiki BAt!E!1

L.H.K0 IKASLEEKIN EGINDAKO 35. GEHIGARRIA




**U**teroko ohitura jarraituz, Pilar ikastetxeko ikasle eta irakasleek mendi irteera egin zuten San Pedrorra ekainean. Lehen Hezkuntzakoak San Pedrorraino oinez joan eta bertan pasa zuten eguna.

DBHkoak, berriz, Arrateraino iritsi ziren. Arrateko Amabirjinari ikustalditxoa egin eta, nola ez, eskaerak egin eta gero egun ederra pasa ostean herrira itzuli ziren. Ikasturte hasieran, irail aldera, berriz errepikatuko dute irteera.

## 7x44teet

Zera esaten dio lagun batek txundituta:  
Baina zer dela eta habil kaletik ohean sartuta?

- Medikuak aginduta.
- Ohearekin paseatzeko esan al dik medikuak?
- Bai, motel. Datorren astera arte ohetik ez irteteko esan zizlak.





## Jakitunen eskutik

### Oporren premia

ritsi dira azkenean oporrik gustukoenak. Bolada honetan bai irakasleak eta bai ikasleak oso nekatuta egoten dira eta, egia esan, oporren premia izaten dute. Oporrak ez dira, beraz, kapritxoa, beharra baizik.

Beraz, umeek oporrak behar al dituzte? Dudarik gabe, erantzuna baiezkoa da.

Halere, kalean sarri entzuten da oporrrak luzeegiak direla eta gurasoentzat seme-alabak etxean horrenbeste izatea astuna egiten dela. Baina, zergatik egon behar dute hurrek horrenbeste denbora etxean? Orain dela urte batzuk beharbada ez, baina gaur egun hainbat eta hainbat ekintza desberdin dituzte neska-mutilek aukeran. Hau da, denbora libre pasatzeko ekintza asko eta asko egin ditzakete: akanpadak dctude, udaleku itxi eta irekiak...

Beraz, ez dago aitzakiarik ezertaz kexatzeko.

Denok desberdinak garenez eta bakoi-tzak gure gustuko zaletasunak ditugunez, aukeren artean gurekin bat datorrena hautatu eta kitto.

Idatzi honen bidez, ikasleei oporrak aprobetxa ditzatelo esango nieke. Era berean, gurasoei, seme-alabekin denbora gehiago pasatzeko oporrak aproposak denboraz direla esan nahi diet. Gainera, udako oporrak oso egokiak dira neguan egin ez



**MONTSERRAT YRAOLAGOITIA**  
PSIKOLOGOA

diren kirolak egiteko, izan ere, eguraldia ona izaten da eta horrek aukera zabalak eskointzen ditu era guztietako gauzak aire librean egiteko. Oso tristea iruditzen zait umeak etxean aspertu egiten direla entzutea, ez baitago arrazoirik.

Umeok, bizi itzazue aukera guztiak, egin lagun berriak eta aprobetxatu topera disfrutatzen.

## Zer iritzi daukazu... .ei buruz?



Ulalw leak 4N4Wfre v/mk Z44, 1, a441, t-a114,e1A.  
4ijA.4e uLLaw ~ 1ulx teak

IVAN SOLAS. 13 urte



uovi(e" uattap

ELISABETH ALVAREZ. 12 urte



044 r4, 144A,dale4", Ea/4",a, 01,moil,e1,14/4~5e,  
44:1444. tegm, tx(44.P teLe",


IRAIZ SALABERRIETA. 9 urte



**MWYAM  
ALOS,&  
7 urte**

## Gaide debalde

- Zer egingo zenuke gustura?
- 2- Hondartzarik politena?
- 3- Pala ala rastriloa?
- 4- Flotadorea ala koltxoneta?
- 5- Itsasoan olatuekin ala gabe?
- 6- Pistina ala itsasoa?
- 7- Poloa ala mantekaoa?
- 8- Edari freskagarri bat?
- 9- Udarak duen onena?



**EIKEIS171  
UQKIRI  
13 urte**

- 1- Lagunekin izkutaketetan jolastu.
- 2- Cambrils-ekoa.  
Pala.
- 4- Koltxoneta.
- 5- Olastuekin, jolasteko.
- 6- Igeri egiteko pistina,  
Coca-Cola.
- 9- Hondartzara joateko aukera.

- 1- KaliForniara jungo nitzan Pamela Sue Anderson ikusteko,
- 2- Malibu Beach, argazkixetan behintzat.  
Umetan nahixo naban palia, zulo houndixak eitzeke.
- 4- Koltxonetia.
- 5- Olatuaekin, olcduak harrapatzen ibiltzeko.
- 6- Pistinia.
- 7- Noranjazko polua.
- 8- Naronjazko Kas-a.
- 9- Hondartza eta oporrak.

## Zer da ee4a4-tta- ?

### JULLIS MLLISIO 10 11.11Ar



"Itsasoa oso polita da baina baita arriskutsua ere ze momentu batean marrazo bat irten daiteke ur-azpitik."

### SIOVA 11 ILJILIT



"Ur garbiz betetako putzu bat da. Ni arraina banintz itsasoan biziko nintzateke oso etxe handia delako."

### LAMOS 7 ULTIE



"Itsasoa garbia da, ur asko dauka eta arrain asko dago."

### XA131M LOPLZ 7 urte



"Itsasoan arrain eta ugaztun asko daude eta batzuetan arriskutsuak dira."

### AIS1110A treurmr 111 urte



"Gau epel batean, haserraturik gaudenean lasaitzen gaituena."

### ISLIDE AIJAISEMLI 13 urte




"Ur asko dagoen toki lasai bat. Kursiek "ozea, no!" deitzen diotena."


RANTZUNAK:1.- Batman, 2.- Zer egiteko aprobe txatuko duzu uda?, 3.- 19 izozki. 4.- Puzkerra, U letra eta gatza.

-upia.qu ainp uatol  
les4oJacio o4a exiod  
luo4ain Jo4ou !no4a  
ziou -

puao6op  
uoJeoln9 n6au  
ucua!soli opn gaq op JaZ  
101.1061 i'nzop!osj -

onsmosn oiR  
uanp onnpns  
ons4o4oJoz 0.1!4  
uoalo uaipuew



MIDIIMP111511 

opimp pizon iDquaz 



„n6olop opqa uot.i az  
z!ou o6unl oJazIncuz  
UD11.18Z1011 110Z1.100  
uplaun6oi  
iz!ou o6unl oipuaw  
UDLI aie z!nu o6unl  
nuoxlciny o6ualai,,

apn 9  
Z31J3d VNV



„clazirmanci  
uaz41na 1906o6  
lop za 'z!ou uazipcp  
0.1n1sn6 uoianodo  
olexija oyeun uelnap  
uazilopici uoloisa  
o4a ulaun6oi  
olaanl aiozpopuok,,  
**alut**  
.I.CIIWHDS INOCINV



ofieg: niappd Jez 

MUM Dpuospad Dp aoN 

i1141131111513 ZIOZO »11DS Dd

Llea




# Oporretarako prest!

**A**zkenean! Iritsi dira urte osoan zehar hainbeste desiratu ditugun oporrak. Dagoeneko gehienek erabakita izango dute zein parajetara joan atsedenaldia hartzeko. Nolanahi ere, gure helburua, bidaia kotxez egiteko asmoa dutenei zenbait aholku ematea da. Horretarako, hainbat mekanika etxeren helbidea emateaz gain, errepi-

dera atera aurretik autoari beharrezko zein errebisio egin behar zaion aipatuko dugu.

Era berean, Herri-zaingo sailean beste hainbeste aholku eman dizkigute bidaia egiterakoan kontuan hartzekoak. Opor garaia izanik, alde batera utzi presa eta abiadura azkarra eta lasai-lasai ekin bidaiari. Esaerak dioen bezala, heldzea da garrantzitsuena.



17-1 ———— 1-611-1 ———— E:-1 ———— 7 ———— 1-77-1 "21" ———— 1-1 ————

## OPEL

### HYU1113141

#### Mentlaro Autoak, S. A.

EIBAR. Otaola, 27 - 70 13 82

ELGOIBAR. Olaso, 27 74 32 00

DONOSTIA Zumalakarregi etorb., 1 - 31 22 00

Garabia egun osoan 989 58 35 36

## Analsa

EIBAR. Otaola, 27 - 70 08 41

ELGOIBAR.. Olaso, 25 - 74 40 12

MENDARO. Plaza auzoa, zlg - 75 50 72

Garabia egun osoan 989 58 35 36

## FT1aZDa

#### Nipon Autook S. A.

EIBAR.. Otaola, 27 - 70 13 82

ELGOIBAR.. Olaso, 27 - 74 02 00

DONOSTIA. Satrustegi, 1 - 31 23 55

Garabia egun osoan 989 58 35 36



#### Anla Autoak. S. N.

EIBAR. Otaola, 27 - 70 13 82


Garabia egun osoan 989 58 35 36

# Autoari txekeoa

Itxertera eta itzulera operazioak hasten diren guztietan, komunikabideetan behin eta berriaz errepikatzen dute errepideetan kontuz ibiltzeko; ahal dela ordu puntak ekiditeko; soziuz joateko, presarik gabe eta, etxetik atera aurretik, autoaren egoera errebisatzeko. Oraingo honetan auto-mekaniko batekin izan gara eta berak kontatu digu zein diren auto bati begiratu behar zaizkion gauzak. 10.000 km.tik aurrera dituen edozein autok ia derrigorra du aipatu errebisioa pasatzea, nahiz eta gutxieneko zainketak auto guzti-guztiei komeni zaizkien. Laburbiltzeko, hiru dira begiratu behar diren funtsezko gauzak: pizketa, direkzioa eta suspentsioa.

Hala ere, goian aipatutako hiru horiez gain hurrengo zerrendan agertzen direnak ere begiratzea gomendatzen dute, beti ere autoaren segurtasunak gure segurtasuna bermatuko duelako.

- Olioaren eta uraren maila.
- Balazta-pastilak.. Uhala edo korrea.
- Bujiak.
- Iragazki edo filtroen garbiketa. Haizetako-garbigailua edo limpiaparabrisak.
- Argiak.
- Seinaleztapen sistemak.




U.L.I.C.E. > < I.C.R.

Santa klara, 13 E.LGOIBAR 908 77 69 84 (Jose)  
Tel: 74 21 08 908 77 16 98 (Mikel)

**GARAJE  
EGANA**  
AUTOAREN KONPONKETA

Pedro Muguruza etorb. 18, behea  
TELEFONOAK: **Tailerra** 74 01 98  
**Partik.** 74 20 18 / 74 33 85



**CARROCERIAS  
STRADA, S. A. L.**

ALFOEN KONIPONKETA  
TXAPA - MEKANIKA - ELEKTRIZTATEA  
PINTURA - ERROI ULAZIOA  
TAPIZERIA CROKORREAF:

Otaola, 22 Tel: 11 70 26 EIBAR

Autonornia kalea, 12 Tel: 74 07 12-16 ELGOIBAR

**ALFA ROMEO**

**HOGEI**

Bittor Sarasketa, 7  
Tel: 12 10 00 / 12 10 19  
Faxa: 12 70 06  
EIBAR

**FIAT**

# Kontuz errepidean

**A**utoa garajera eraman dugu eta mekanikoak prest laga digu. Hortaz, ibilgailuari dagokotanean badirudi beharrezko neurriak hartu ditugula. Baina, errepidean ere arretaz tbitztea komeni da. Horregatik, jarratan, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Satlak emandako zenbait aholku gogoraziko ditugu.

- Bidaia aldeaz aurretik antolatu, trafikorik handiena egoten diren egunak eta orduak ekidinez. Ahai den neurrian irteera atzeratu eta itzulera aurreratzeta komeni da.

- Gaez gidatzea arriskutsuagoa da eta lekua ezagutzen ez badugu arriskua areagotu egiten da. Ikusmenean nekea igartzeta bada, berriz, geratu eta atsedena hartu behar da.

- Trafiko eta errepideen egoeraz informatu komunikabideen birtartez, SOS DEIAK (008) zerbitzura edo trafikoari buruzko telefonoetara deituz: **945 28 20 00** (Araba), **94 444 14 44** (Bizkaia) eta **46 61 12** (Gizpuzkoa).

- Trafiko handia badago edo ilaran bazoaz beste kotxe askoren aurretik ez egin alferrikako aurreraterik. Denbora gutxi irabazteko duzu eta arriskua

handia da.

- Abiadura kontrotatu denbora guztian. Segurtasun distantzia gorde beti, batez ere errepidea egoera txarrean badago.

- Zirkulazio Kodeko arauak errespetatu eta trafiko agenteek egiten dituzten adierazpenei kasu egin.

- Ez edan alkoholik eta ez jan janari astunik. Edariarekin ezin da gidatu eta gehiegizko janariak logurea ematen du.

- Neke edo ondoez sintoma txikiaren aurrean atsedena hartzea geratu. Ez egin bidaia luzerik geratu gabe. Ume txikiak sarri deskantsatu behar dute.

- Ez hartu ekipaia gehiegirik Ikusmena kentzeaz gain, autoaren egonkortasuna ere arriskuan jar dezake.

- Nahiz eta bigarren mailako errepidea izan eta trafiko gehien ibiltzen ez den ordua, ez da gutxitu behar arreta, frogatuta baitago une eta toki horietan izaten direla istripu gehien.

- Autopistan, eskuinteko karriletik zirkulatu, segurtasun distantzia handiagoa gorde eta egin beharreko maniobrak aldeaz aurretik seinatu.



1)\*

**7<sup>11</sup>9 ELGOIBARRESAS**

**CZONS**

**Pedro Migel Urruzuno, 2**

**Tel: 74 08 97**

**Mobila: 908 775 996**



## "Gorputza makina bat bezelakua dan



### Mari Luz Izagirre

- **Adina:** 64 urte
- **Mendiaz aparte?** Eskulanak  
Kuadro bat pintatzia nahiko neuke
- **Bazkarietan ardoa ala ura?**  
Jaotruetan bat ere ez.  
Gainontzian likido mordua eraten dot
- **Beste kirol egitekotan, zein?**  
Bizikletia ein naban iaz Landetan,  
eta ikaragarri gustau jatan

**- Mendizale amorratua zaitugu.**

Bai, oin sekula baino gehixo gainera. Ezkonberritxan jaiero matrimonixoa batzuk elkartzen ginan eta Madarixa alde-  
ra jutun ginan umiekin. Gero laga ein gendun eta oin dala urte batzuk senar-  
rak eta bixok Karakatera jutia erabaki gendun. Hain ederki ikusi naban neure burua, gero jaiero hasi ginala mendira jutun. Semiakin ere hasi nitzan Aizkorri eta inguru hoietara eta gaur arte.

**- Eta orain ezin egon mendira joan gabe.**

Halaxe da, bai. Gusanillua sartu jata eta jaiero jutun gera nora edo nora. Senarra ere amorratua eoten da juteko. Harek 71 urte dakaz eta sarritxan ixotzen dau Karakate. Kotxerik ez dakagu eta oinez eitxen dou dana. Goizian urten, nunbaitxen bazkaldu eta ihintzixan etxera. Lengan ein gendun San Pedrorra jun, Hiruiturra gero, Kalamua eta Garagoitxi ein, bajatu Itxuara, ixo Urkora, Arraten bazkaldu, eta, tipitapa, San Pedrotik zihar etxera. 30 -35 knometro ein genduzen. Jaiero eitxen dou mendi buelta ederra.

**- Morkaikoren mendi irteera guztietan, hantxe izaten zara.**

- Asko gustatzen jata eoten dan ambientia. Zoragarrixa izaten da. Igandian Anboton eon ginan. Ezkerraldetik ixo gendunez gogorra izan zan ze harrixa besterik ez zauan. Gero Atxartera jun ginan, trabesia zan eta. Beste behin Arabara jun ginan. Benetan trabesia politxak eitxen douz.

**- Eguraldi txarra egon arren ere, mendira beti?**

- Txar-txarrakin ez байна euri piskat ein arren bai. Adibidez,

Finalista egunian, orduan ere ixo gendun Morkaikora.

**- Elgoibarko itzulia zenbat aldiz egin duzu?**

Azkenengo lau urtietan jun naiz. Beti nere erritmora, batekin eta bestiakin berba eitxen. San Bartolome kalian jungo bagina bezela jutun gera. Gustatzen ez jatana asfalto gainian ibiltzia da. Donostia-Itziar ere eitxen dot eta ez jata hainbeste gustatzen bide asko errepidia dalako. Elgoibarko mar-  
txiak ez daka zementorikan eta asko gustatzen jata. Lau urtian behin Tolosa-Tolosa ere eitxen dot. Gainera, mendixan danakin disfrutatzen dot, paisajia-  
kin, arbolekin, bide bazterreko edozein margaritekin,... danakin.

**- Zein da igo duzu mendirik al-  
tuena?**

Jose Inazio semiakin Pirineue-  
tara junda nao eta bi milako batzuk ein genduzen. Abuztuan edo setienbrian Frantziara jutekuak gera hiru milako bat eitxera. Marruekos-en eon dian andrekin ere jutekua nitzan baina umiak zaintzen ditxudaz eta ezin nitxuan Iaga.

**- Zer egiten duzu sasoi-  
an mantentzeko?**

- Ezer. Danetik jaten dot, kontrolik gabe gainera. Ibilf eta Osasuna kristona omen dakat. Baina ez pentsau bakarrik geranik. Semiak esaten dia Anboto, Aizkorri eta Gorbeiko 22 orduko trabesia adineko jendia ikaragarri ikusten dala.

**- Noiz arte erritmo honetan jarraitzeko asmoa?**

- Ahal doten bitxartian. Nik beti esaten dot ahal dotena ingo dotela. Gorputza makina bat bezelakua da; zenbat eta gehixo fortzau orduan eta gehixo ematen dau.

## KIROL ALBISTEAK • KIROL ALBISTEAK

• **TINI txapelketaren higarren salaa**

La Unión Elkarteak antolatuta, Iarunbanean, hilak 12, herritarrentzako tiro txapelketa izango da Arrateko tiro zelaian. Tiraldia arratsaldeko 4etan hasiko da eta 7ak aldera amaituko. Finala datorren zapatuan jokatu-  
ko da, arratsaldeko 4etatik 7etara bitar-  
tean Arrateko tiro zelaian.

• **Sigmako Pilaia Txapeiketa finalerdietan**

Sigmako Estarta Elkarteak antolatu-  
tzen duen binakako Pilota Txapel-  
keta finalerdietara iritsi da. Gaur, hil-  
lak 11, lehenengo finalerdia jokatuko  
dute arratsaldeko 7:30etatik aurrera  
Txurruka eta Leiaristik Ibarluzea eta  
Iparragirreraren aurka. Biganen  
finalerdia datorren ostegunean

jokatuko da. Lendinez eta Osoro Ar-  
maxio eta Agirregomezkortaren  
aurka arituko dira. Partidua arratsal-  
deko 7:30e tan izango da Sigmako  
frontoian. Finala Santiago egunean  
jokatuko da, hilareu 25ean. Goizeko  
11etan hasiko da eta bukaeran lun-  
txa eskainiko zaie jokalariei eta zale-  
tuei. Txapelketako lehen kategorian  
6 bikote aritu dira eta bigarren kate-  
gorian 10 bikote.

# Elgoibarko eskubaloiak sei sari jaso ditu 96-97 denhoraldian

Joan den ostiralean Elgoibarko Kirol Elkarteko Eskubaloi Taldeko jokalariek eta zuzendaritzako kideak Donostian izan ziren Gipuzkoako Federazioak ematen dituen sariak jasotzeko. Talde mailan, kadete neskek saria jaso zuten Ligako txapeldunordeak eta Kopan txapeldunak izan direlako aurten. Kadete mutilak sarituak izan dira Liga irabazi dutelako eta Euskal Ligara igotzea lortu dutelako. Jubenil neskek txapeldunordeak izan dira Ligan eta Kopan eta azkenik, taldeei dagokienean, jubenil mutilak Ligako txapeldunordeak izan dira eta Euskal Ligara igotzea lortu dute.

Taldeak jasotako sariez aparte, Elgoibarko bi jokalarik saritu dituzte. Bata Ion Ulibarri I. territorialeko goletzaille nagusia izan delako, eta bestea Ander Goikoe-txea, kadete mutilen mailan jokalarik nabarmena izan delako.



Eskubaloi taldeko zuzendaritzakoak eta jokalariek Donostian sariak jaso zituztenean.

Bestetik, nesken eskubaloi taldeko hiru jokalarik, Ainhoa Uriarte, Julia Fernandez eta Oihana Apellaniz-ek Euskadiko selekzioarekin entrenatzen jardun zuten pasa den astean Asturias-en egin zuten kontzentrazioan. Euskadiko selekzioaren kontzentrazioan ez ezik, Juliak eta Oihanak Espainiako selekzioak Leioan egin duen kontzentrazioan parte hartu dute aste honetan.

# 270 lagun bildu zituen Club Deportivoak joan den larumbateko afarian

Dasa den larunbat gauean Elgoibarko Club Deportivoak afaria antolatu zuen denboraldiari amaiera aproposa emateko asmoz. Guztira 270 bat lagun elkartu ziren Kiroldegiko frontoian prestatu ziren mahaien bueltan. Hauetatik 100 bat zaletuak izan eta gainerakoak klubeko jokalariek eta zuzendaritzako kideak. Afarian zehar azken zazpi edo zortzi denboraldietan Haundiko jokalariek izan diren Josean Agirregomezkorta "Txartxa" mutrikuarra eta Joseba Zubizarreta "Galtxa" azpeitiarra omendu zituen klubak. Bi jokalariek plaka bana jaso zuten urte hauetan egindako lanaren errekonozimendu modura. Era berean, play-offean zehar sartutako gozengatik Idarraga Kafeak dendak emanda-ko 15 kilo kafe jaso zituzten jo-

kalariet. Bi gol sartu zituzten jokalariek Yerobi eta Madina zarauztarrak izan ziren eta haiei Idarragak tarta bana eman zien. Afariaren ostean dantza egiteko aukera izan zuten eta goizaldeko 2:30etan egin omen zuten alde Kiroldegitik. Seguru jai ez zela ordu horretan amaitu.



Idarragak kafe kilo bana eman zien play-offean gola sartu zuten jokalariei. 15 kilo kafe guztira.

## Futbol 7 Txapelketa

La Orden Frantziskana 0 - Potxokoak 5  
 Multioplicas Uzuri 8 - Debanda 4  
 Lojantxiris 4 - Waka 1  
 Akatu 5 - Arkupe 1  
 Zokoa Glub Nautic 4 - Sex Symbols 1  
 Tsunami's Team 0 - Vultur Gryphus 2  
 Txiribindu 6 - Paotxa 5  
 Malas Hierbas 2 - Xare Taberna 2  
 Wino 4 - Peña Alaitz 3  
 Nothingan Prisa 2 - Berrogei Duro 2  
 Lagun Toki 3 - Karkis 1  
 Ere Bai 3 - Itxi stan 6  
 P.S.K. 2 - Tomas y diez mas 1  
 La Colina 3 - La Inkisizion 3  
 Ikus Optika 3 - Fontaneria Astigarraga 2  
 Spartak Pitxote 4 - Udaberri 0  
 Maser 11 - Aide Globun 0  
 Aupa Tu 0 - Pedrusko 1  
 Excalibur 9 - Beti Sutan Lt  
 La Orden Frandskana 3 - Multioplicas Uzuri4  
 Ford Lerun 4 - Aubixa 7  
 Askasibar 2 - P.G.B. 2  
 Anorthosis 6 - Europurki 2  
 Poixokoak 1 - Lojantxiris 1  
 Waka 4 - Debanda 4  
 Akatu 10 - Sex Symbols 2  
 Vultur Gryphus 2 - Arkupe 2  
 Tsunami's Team 0 - Zokoa 6  
 Txiribindu 3 - Malas Hierbas 5  
 Wino 3 - Paotxa 3  
 Peña Alaitz 0 - Xare 4  
 Nthongan Prisa 0 - Karkis 8  
 Aubixa 1 - Askasibar 2  
 Ere Bai 0 - Berrogei Duro 1  
 Lagun Toki 11 - Itxistan 3  
 P.S.K. 2 - La Colina 3  
 F. Astigarraga 5 - Torlas y Diez mas 1  
 P.G.B. 7 - Independiente de Varedun 1

.33C1

## Sinmako Pilota Txapelketa

Ostirala, 11  
 19:30 Txurruka/Leiaristi - Ibarl ueza/I parrag irre (Finalerdia)  
 Osteguna, 17  
 19:30 Lendinez/Osoro - Armaxio/Agirregomezkorta (Finalerdia)

## Futbol 7, Mintxetan

Larunbala, 12  
 9:00 La Orden Frantsizkana - Lojantxiris  
 Arkupe - Zokoa  
 10:00 Waka - Multioplicas Uzuri  
 Txiribindu - Wino  
 11:10 Debanda - Potxokoak  
 Peña Alaitz - Malas Hierbas  
 12:01 Akatu - Vultur Gryphus  
 Paotxa - Xare taberna  
 13:00 Tsunami's Team - Sex Symbols  
 Nothingan Prisa - Ere Bai  
**Igandea, 13**  
 9:00 Itxistan - Karkis  
 Aide Globun - Spartak Pitxote  
 10:00 Berrogei Duro - Lagun Toki  
 Pedrusko - Maser  
 11:00 P.S.K. - Fontaneria Astigarraga  
 Aupa Tu - Udaberri  
 12:00 Ikus Oplika - La Golina  
 Excalibur - Anorthosis  
 13:00 La Inkisizion - Tomas y Diez mas  
 Beti Sutan - Bar La Amistad

# RI 2L

## James Brown is dead

Nation of Ulysses" taIdearen errautsetatik ateratako taldea dugu Make Up. Whashington-etik datorkigun talde honek hiru diska argitaratu ditu dagoeneko. Lehenengo bi diskoak zuzenean grabatutakoak dira Dischord argitaletxearen eskutik (Minor Threat, Fugazi, Lungfish...).

James Brown-en itzalaren azpian rnantentzen den talde honek musikaren alde basatiena erakusten digu, teknologia alde batera utziz. Begirada bat atzera botaz gero, funky, soul edo Gospel ye-ye deritzona jorrazten dute.

Argitaratu duten azken diska (Sound Venite, 1997) "K" zigihrean argitaratu da, Calvin Thonson-ek (Dub Narcotic Sound System) ekoiztua hain zuzen ere. Soul "narkotiko" agoa atera zaie diska hau, abeslariak James Brown-en antzera abesten duelarik.

R'n R is dead, Make-up is lies!

Iban Urizar, Julen II

MAKE UP



SOUND VERITE

## Elgoibarri buruzko gida turistikm kaieratu berri da

Kanpoko blsitariei informazioa emateko pentsatua dago

*Elgoibarko Izarra Kultur Elkarateak Elgoibarri buruzko gida turistikoa kaleratu berri du. 36 orrialdeetan zehar gure herrian ikusi eta bisitatu daitezkeen tokiei buruzko informazioa aurki daiteke. Honez gain, hainbat bitxikeria eta datu interesgarri ere jasotzen ditu burukiak. Batez ere Elgoibarrera datozen kanpotarrei zuzenduriko gida bada ere, elgoibartarrantzat ere izan dezake interesik.*

**G**ida eskuratzeko Kultur Etxera jo behar da, Udala baita banaketaren arduraduna. Gida hiru hizkuntzatan idatzia dago, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, nahiz eta euskara izan nagusia. Gida eskuetan hartuta, bisitariak Elgoibarko lekurik esanguratsuenak bisitatzeko argibideak jaso ditzake, modu erraz eta grafikoa. Gure herriko eraikuntza ikusgarrienak (Kultur Etxea, Olasoko hilerria, Udale-

txea, eliza, auzoak...) industriari buruzko datuak eta industrialde ezberdinen kokaperta, herriko jaiak noiz diren, zein tokitan jan, lo egin edo panandan ibil daitezkeen, etab. agertzen dira. Guztiaren lagungarri modura, herriaren plano bat eta telefono interesgarriak datoz.

## ELGOIBAR



Barrenek hartu du Elgoibarko gida egitearen ardura. Guztira Gida Turistikoaren 4.000 ale kaleratu dira.



Elgotharko Izarrak eta Talde Antimilitaristak antolatuta

# Reggae-rock

## kontzertu bikaino bihar Madaion

Talde Antimilitaristak duela hilabete antolatu zuen musika kontzertua bertan behera geratu zen euria zela eta. Bestalde, Irlandako talde batek Euskal Herrian bira egitz behar zuela eta Elgoibarren jotzeko aukera aztertzeko eskaera iritsi zitzaion Elgoibarko Izarrari. Kontua da, gauza bat eta bestea tarteko, azkenean biek, Elgoibarko Izarrak eta Talde Antimilitaristak elkarlanean antolatu dutela kontzertua. Bihar, larunbata, hilak 12, arratsaldeko 7:30etan hasita izango da kontzertua Madalako parkean. Lau talde arituko dira: Breag iriatzdarra, Arawak gasteiztarra, Fundiziyue azpeiti-azkoitiarra eta Ehun Kilo elgoibartarra.

**A**rratsaldeko 7:30etan Breag eta Arawak taldeek emango diote hasiera kontzertuari.



Ehun Kilo talde elgoibartarrak parte hartuko du kontzertuan.

**Breag** izenaren esanahia "gezurrak esatea" da. Irlandatik datorren talde hau Belfast-en sortu zen duela hiru urte. Bost lagunek osatzen dute aipatu taldea eta gaelikoz abesten dute. Reggae eta ska estiloak nahasten dituzte Irlandako soinu alaiak beti tartean delarik. Batez ere dantzarako doinua omen da hauena.

**Arawak**, berriz, Gasteiz aldetik dator. Arabar hauek reggae-ska musika egiten dute eta taldea duela urtebete sortu zen. Berez, honako talde honen jatorria Potato taldean dago.

### Ehun kilo eta Fundiziyue

Gauean, berriz, **Ehun Kilo** eta Fundiziyue taldeen txanda izango da. Ehun Kilo talde elgoibartarra duela 7 urte inguru sortu zen. Euskal hard-rock-a da talde honek egiten duen musika mota eta abesti guztiak euskaraz kantatzen dituzte. Biharko kontzertuan bi taldekide berriren aurkezpe-



Argazkian Breag taldekoak ikus ditzakegu Belfast-en, nahiz eta hormara begiratuta beste tokiren bat ematen duen.

na egingo dute: Gontzal bilbotarrak kitarra joko du eta Txitxes eibartarrak baxua. Hauek biek Jon Itunino eta Kristianek lagatuko tokia ordezkatuko dute aurrerantzean. Ehun Kilo I 995eko abenduan argitaratu zuen azken diska.

Hiru azpeitiar eta bi azkoitiarrek osatzen dute **Fundiziyue**. Orain dela urtebete eratu zen taldea gaur egun ezagutzen den bezala. Euren hitzetan rock and roll-a egiten dute eta momentuz diska propiorik atera ez duten arren, Euskadi Gazteak antolatzen duen maketa lehiaketaren azken irabazleak dira. Azpeiti eta Azkoiti inguruko beste hiru talderekin batera konpaktoa kaleratu dute orain gutxi.

Bihar, euririk egiten ez badu behintzat, aukera paregabea izango da estilo desberdinetako musika entzun eta dantzatzeko.

**INTERESEKO TELEFONOAK**

**OSASUNA**

Anbulategia:  
 Larrialdiak ..... 461111  
 Txanda hartzeko .... 743354  
 Planning-a ..... 742950  
 Alkoholiko Anonimoak ..... 740385  
 D.Y.A (anbulantza) ..... 464622  
 Gurutze Gorria..... 743864  
 Meridaroko Ospnalea . 756264  
 Odol Emaileak ..... 743936

**GAHRAIOAK**

Eusko Trenbideak ..... 740442  
 PESA (Eibar) 902 10 12 10  
 Taxi geltokia ..... 740898

**UDALA**

Euskara Zerbitzua .... 744366  
 Udal Kirol Patronatua 744415  
 Kultura Zerbitzua... 742158  
 Mendaroko Udala .... 756100  
 Ongizate zerbitzua .... 741008  
 Udalotxea ..... 741050  
 Udaltzaingoa ..... 741394

**BESTELAKOAK**

Elgoibarko Izarra ..... 741626  
 Kiroldegia ..... 744415  
 Kontsumo Bulegoa .. 743088  
 Liburutegia ..... 743525  
 Musika Eskola ..... 742145  
 Mintxeta ..... 744315  
 Parrokia ..... 740842  
 Postetxea ..... 741547

**HIRUGARREN ADINA**

San Lazaro Egoitza . 740296  
 Zaharren Biltokia . 740526

**IKASTETXEAK**

Haur Eskola ..... 74 21 41  
 Herri Eskola ..... 74 08 79  
 L.M.H ..... 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre ..... 74 02 67  
 Ezenarro (Meka) .. 74 44 80  
 Ikastola..... 74 44 41  
 L.H.I. .... 74 44 80  
 Pilar Ikastetxea ..... 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**

BARREN ..... 74 41 12  
 El Diario Vasco 74 40 73  
 El Correo Español ... 74 10 82  
 Egin ..... 10 84 21  
 Zazpiki irratia ..... 74 34 74

**1**

**larun ata**

12:30 PRESOEN  
 ALDEKO AUTOEN  
 KARABANA  
 Irteera Olasotik  
 Antolatzailea:  
 Amnistiaren Aldeko  
 Batzordea

16:00 TIRO  
 TXAPELKETA  
 Arrateko zelaian  
 Antolatzailea: La UniOn  
 Elkarte

19:30 REGGAE ETA  
 ROCK KONTZERTUA  
 Madalako parkean  
 Antolatzaileak:  
 Elgoibarko Izarra eta  
 Talde Antimilitarista

22:30 AIRE LIBREKO  
 ZINEA  
 "Wallace and Gromit"  
 eta "Matilda"  
 Plaza Handian  
 Antolatzailea: Ongarri  
 Zine Kluba

**11**

**ostirala**

16:30 ODOL  
 ATERALDIA  
 P.M. Urruzuno 8an

22:30 AIRE LIBREKO  
 ZINEA  
 "Space Jamn"  
 Plaza Handian  
 Antolatzailea: Ongarri  
 Zine Kluba

**18**

**ostirala**

22:30 AIRE LIBREKO  
 ZINEA  
 "Twister"  
 Plaza Handian  
 Antolatzailea: Ongarri  
 Zine Kluba

al 11 al 11 al 111

11:11  
 4 C11



**Space Jam**

Marrazki bizidunak eta gizakiak dira pelikula honetan protagonistak. Michael Jordan NBako saskibaloiko jokalaria ezaguna, Bugs Bunny, Lucas ahatea, eta Tasmaniako deabrua dira pertsonaia nagusiak. Michael Jordane saskibaloian jokatzen irakatsi behar harko die Bugs Bunny, Lucas ahateari eta beste lagunei Nerdluks izeneko aliens batzuei irabazi nahi badiete behintzat.

Zuzendaria: Joe Pytka  
 Antzezleak: Michael Jordan, Wayne Knight

1:15  
 TN2

Mill111



• **Aire libreko zine emanaldi bikoitza**

Bihar, larunbata, eguraldiak laguntzen badu behintzat, Ongarri Zine Klubak emanaldi bikoitza eskainiko du aire libreko zine saioan. Bereziki haurrei zuzenduriko saioa izango da. Gaueko 22:30etatik aurrera eskainiko diren bi filmeetako lehenengoa "Wallace and Gromit" izenburuko pelikula da eta euskaraz izango da. Bigarren filmea "Matilda" da. Datorren ostiraleari "Twister" filmea emango dute,


**FARMAZIAK**

Egunez      Gauez  
 12 Bidasoio\*      Escaia  
 13 Bidasolo\*      Escala  
 14 Bidasolo Bidaasolo  
 15 Etxeberria Etxeberria  
 \*(eguerdiko 2ak arte)

**ESCALA:** Rekalde, 1  
 Soraluze. Tel: 75 16 38

**OKINDEGIA**

13 egandea Fotero



• **Reggae eta rock kontzertua larunbatean**

Bihar, hilak 12, reggae eta rock taldeen kontzertua izango da Madalako parkean Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte eta Elgoibarko Talde Antimilitaristaren eskutik. Kontzertua doan izango da eta arratsaldeko 7:30etan hasiko da. Parte hartuko duten taldeak honako hauek dira: arratsaldean Breag reggae talde irlandarra, gaelikoz kantantzen duena eta Arawak euskaldunak. Gau partean Fundiziyue taldeak kantatuko du lehendabizi eta azkenik, Ehun Kilo elgoibartarrak arituko dira euren ohiko kitarra doinu gogorrekin.

• **Amnistiaren Batzordearen gose grebarako deialdia**

Uztailaren I 2tik 19ra bitartean Deba Beheko Amnistiaren Batzordeek deituta, gose greba egingo da Deban, Donostiako Artzai Onaren Katedralean egin zen ekimenaren bidetik. Elgoibarko Amnistiaren Batzordeak autoen karabana antolatu du Elgoibartik Debara larunbaterako, hilak 12. Autoak ilaran aterako dira Olasotik eguerdiko 12:30etan. Igandean, hilak 13, enkartelada egingo da Debako hondartzan. Elgoibartan txanda eguerdiko ordu bietatik hiruetara bitartean izango da eta eguerdiko ordu batean Kimetz elkartearen bilduko dira Debarantz abiatzeko. Astelehenean, hilak 14, arratsaldeko 7:30etan beste enkartelada bat egingo da Alamedan eta elgoibartarrak 7etan aterako dira Kimetzetik. Azkenik, hilak 19rako, Errnua, Eibar, Elgoibar, Deba eta Mutriku herriek osatutako plataformak manifestazio ixila deitu du eguerdiko 12etan, Deban baita ere.

**ONGARRI zine kluba**



Zuzendaria: Danny DeVito  
 Antzezleak: Mara Wilson, Danny DeVito, Rhea Pearlman

**Matilda**

Matilda EEBBetako familia bateko alaba txikia da. Gurasoak arraro xamarak dira eta Matildak bere mundu propioa sortzen du. Neskatoak botere bereziak ditu, hau da, gauzak mugitzeko ahalmena dauka eta liburuak ere oso gogoko ditu.

**Wallace and Gromit (Euskaraz)**

Marrazki bizidunen filmea da, ordu beteko iraupena duena. Plastilinazko irudiekin eginda dago eta haurrentzako aproposa da.

**Salerosketak**

◆ **SALDU**

- 1,5 metroko ohea egiten den sofa bat saltzen dut. 74 25 15
- Kitarra elektrikoa eta anplia salgai prezio onean. 100 watioko Marshall Valvestatea da. Egoera onean. ir 74 19 26 (Asier)
- \*MIDI furgoneta berria Kanpinera aproposa. Bizikletak erantatekoa dauka. Toldoa aukeran. 74 27 48 (Arratsalde)
- Kanpin handia, familiarra salgai. w 74 27 48 (7etatik aurrera)
- GAME BOY-rako Master Karateka eta Tetris salgai. Prezio interesgarria. Ir 74 39 39
- Merkatu plazan liburutegi-kioskoa traspasatzen dut. te 74 25 17 (Amaia)

Aukera interesgarria: Beneeci Superliger eskopeta saltzen da. Oso ondo zainduta dago. Bi urteko garantia eta estrak. 74 03 92 (Dani)

- Peugeot SRD salgai. Merkea. Honda 500 VER motorra (berria). w 907 84 40 54 (Unai)
- Poliesterezko Yamaha itsasuntzia salgai, 4 zaldiko motorra. 4,50ko luzera eta 1,50ko manga. re 19 13 07

**Lana**

◆ **ESKAERM**

- Etxea garhitzeko emakume hat eskaintzen da. tr 74 21 88
- 26 urteko neskak tabernan lan egingo luke. Esperientziarekin. Te 75 20 69 (Kristina)
- Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. 909 41 73 52
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Esperientziaduna eta euskararekin. tr 19 21 28 (Asun, asteburuetan)
- Neska eskaintzen da urneak zaindu edo hestelako lanak egiteko. tr 74 18 68
- Ileapaintzaile titulodun neska eskaintzen da umeak zaintzeko. te 74 22 91 (Cristina)
- Neska hatak haurrak zaindu eta etxekolanak egingo lituzke, Euskalduna eta esperientziarekin. tir 74 31 88 (Amaia, Goizez)

**Bestelakoak**

- Gizonezko erloju bat dago Ikastolan jasotzeko. Ekainaren 2 lean Mintxetan jokatu zen partiduan ahaztu zuen norhaitek. tr 74 44 41
- Austriako familia hatak Salzburgorako au-pair bat behar du. Urtebeterako, abuztuaren 15etik aurrera. Erretratua eta aurkezpen eskutitza bidali honako helhidera: "Fran Lifka, Weidenstrasse 3A, Birkensiedlung. 5020 Salzburg (Austria)
- Bi mutil hartuko nituzke apopilo. Erropen garbiketa harne. ir 74 09 44

**Partikularrak**

- Ingelesko partikularrak ematen ditut. s 74 15 82 (Eduardo)
- Fisika eta matematika klase partikularrak ematen ditut. 74 13 34 ( Andoni I
- Frantses klaseak ematen ditut. Ikastaro trinkoa uztailean. tr 74 04 59
- LOGSE batxildegoko marrazketa eta arkitektura eta injinerutza has-teko oinarriko marrazkela eman-got ditut uztailean. tr 74 03 74
- \*Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. zr 74 09 72 (Garikoitz)
- Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. s 74 21 65 (Javi)

**Garajeak**

- Bi garaje alokatzen ditut Santa Kalean. s 74 05 49 / 74 09 09
- Trenbide kalean garajea salgai. Oso handia da, errulota edo bi kotxe sartzeko beste. Sohrepisoa dauka. s 74 01 33
- Urasandin garaje itxia saltzen da. is 74 08 63
- Garaje itxia salgai Arregitorren. tr 75 51 77
- Urasandin garajea dut alokatze-ko. Marraduna. 1:tr 74 31 07
- Garajea salgai Juan Mugerza kalean. tr 74 12 04 (20:00-22:0)
- Garaje itxi hat saltzen da Arregitorren. z: 74 12 53

**Etxebizitzak**

- Pisia edo huhardila hat alokatu-ko nuke. Ez zait inporta herritik urrun hadago. a 74 43 10 Cristobal.
- Elgoiharren pistia edo gela hat alokatu nahi dut. a 74 40 40 (M. Eugenia)
- Maiatzetik irailera hitartean etxea alokatzen dut Jakan. S 74 15 22
- Aleoheber-en apartamentua alokatzen da uztaile eta iraillean. tr 74 22 08
- Torrev iejan apartamentua alokatzen dut. Ahuztuaren lehen 15 egunak eta iraila. a 74 24 50
- Bungalow-a alokatzen dut Santa Polan udan, uztailean izan ezik. tr 74 12 13 (Carmen, gauez)

**Agurrak**

- Zorionak Arkaitz Egañari hilaren 14an 14 urte beteko dituelako, bere lehengusu Juanjo, Nerea eta Andoniren partez.
- Aitor, zorionak zure pitxiloreen eta pinpoiloaren partez. Afari eder hat emango diguzulakoan, Inuxu hat.
- Zorionak Sonia Segundori atzo, hilak 10, urteak bete zituelako. Kuadrilakoan eta "F"ren partez. (Zoriontik, Gata).
- Zorionak Txotnin Zabaletari igandean, hilak 13, apaiz ordenatuko dutelako, Adolfo familiaren eta GARE taldearen partez.
- Zorionak Maider Diezi uztailearen 8an 11 urte hete zituelako here lagun Olatz, Eneritz. eta Maiteren partez.
- Zorionak Jonathan Gareleri gaur, hilak I 1, 5 urte hetetzen dituelako, Musu handi hat arrebata eta gurasoen partez



• Zorionak Illontse Brunori here familia, lagun eta Mariaren partez uztailearen 14an urteak beteko tuelako.



• Zorionak Rauli hilaren 9an 11 urte hete zituelako. Kuadrila osoaren partez, ondo pa-sa!

**Agurrak**



• Kaixo Ma: Ahaztu egin gela uste zenuen, e? Ba ez, hemen gaude, Verónica eta Ivonne, Josu, Sally, Donnete and company, Musu handi hat eta zorionak, Maite zaitugu. Agur.

• Zurionak Ainboa Garitagoi-tiari joan zen os-tiralean, hilak 4, 12 urte bete zituelako.



\*Zorionak Andoni Arrnabarrenari hilaren 12an here urtebetzea delako. Guraso, anala Aitor, arreha Leire eta amaren partez, musu haundi batekin.



• Zorionak Aurari larunhatean urteak beteko dituzulako, Zure lagun guz-tien partez.



Erufiean. Ez zara libratuko!!?

• Gorkiri Patronatuko lagun partez, zorionak!!! Nahiz eta txapuzoiaz tu, gaur gauean ospatuko dueu

\*Zorionak Hur Ondarza Lobeteri hilaren 16an urte beteko dituelako. Aitxixta eta osaba- ren partez.



4Zorionak Jesus Garitagoi-lari hilaren 15ean 47 urte beteko dituelako. Emazte Kontxi eta anai-arreba Itsaso eta Iosuren partez,

• Zorionak Itoitz Vitoresi uztailearen 4an 2 urte hete zituelako. Anaia Urko eta familiaren partez.



## ARROZTEGIAK

**BIENA**  
Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 16  
☎ 74 31 16

**GARCIA**  
Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
☎ 74 32 38

**JUARISTI**  
Leihoak-Armairu  
enpotratuak  
Santa Ana, 18  
☎ 74 33 38

## USIDOSO

Ermuaranbide, 2.0 •  
☎ 74 34 90

## SORALUZE

Leihoak-Armairu  
enpotratuak  
Santa Ana, 3  
☎ 74 36 34

## ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 74 05 47

## ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea 16  
☎ 74 03 96

## 1.01\$ F. BERISTM»

Artetxe, 1  
☎ 909 42 68 19

## ITURGINTZA

**ANGEL**  
Santa Ana, 5  
☎ 74 17 61

**JAVI**  
Erretxindi, 1  
☎ 74 14 80  
☎ 908 77 29 32

**JUAN CARLOS S.L.**  
Urasandi 59-61, behea  
☎ 74 34 87

**PAGOAGA 1 - 4 •**  
San Antolin kalea, 13

## ZUBIZARRETA

Ubitarte, 54  
☎ 74 07 89  
☎ 908 14 30 40

## ONGI

Urasandi, 8  
☎ 74 10 82

## PINTURAK

### PINTURAS ELGOIBAR

**FERMIN**  
Urasandi, 57-3  
☎ 74 39 91  
☎ 909 76 119 77

### JOSE PINTURAK

San Bartolome, 28  
☎ 74 12 55  
☎ 929 44 23 14

## IGELTSERITZA

**KIDEEK S.L.**  
San Roke, 17  
☎ 74 34 86  
☎ 989 58 37 61

**ANTONIO MARKEZ**  
Urasandi, 24  
☎ 74 34 18

**PATXILLO**  
Pedro Muguruza, 13-5  
☎ 908 31 96 42

## ELEKTRIZITATEA

### ARAMAR

Merkaiko, 1  
☎ 894 11 11

**AZPELETA**  
San Frantzisko, 51  
☎ 74 12 38

### BETI ARGÍ

Errosario, 6  
☎ 74 16 44

### URZELAI

Santa Ana, 12  
☎ 74 13 76

## ISOLAMENDUAK

Inpermeabilizazioak  
Ubitarte 7  
☎ 74 30 94

# ESCORT SENDO BERRIA



## TURBO DIESELA, 1.800 MOTORRA

Lagundutako direkzioa, leihoetako igogailu elektrikoa, itxidura zentralizatu, airbag-a, babeserako barrak.

**1.740.000 pta.tan**

*(BEZ, matrikulazio zerga, promozioaren deskontua eta Prever plana barne, matrikulazioa eta irratikaseta izan ezik)*

**ornovi es e<sup>7</sup>in, S.L.** Zerbitzu Ofiziala